

Osoko bilkura

Gasteizen, 2013ko ekainaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Sarasola, Ibon,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun eta Zabaleta, Joseba.

Ezin etorriak eta ahalak: Miren Azkarete ahala Patxi Goenagari; José Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Patxi Goenagari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura goizeko 10:05ean hasi da Gasteizen, Eusko Legebiltzarraren egoitzan, ezkerreko zutabearen ageritaren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak bilduriko euskaltzain guztiak agurtu ditu, etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri eta, quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko batzarrari hasiera eman dio, eguneko gai-ordena jarraituz.

Idazkariordeak eguneko egitarauari buruzko ohar batzuk egin ditu.

1. Osoko bilkurako (2013-05-31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Ahoskerari buruzko txostena dela eta (Azken ordukoetako 6.1. puntua), M. L. Oñederrak adierazi du denbora faltaz zegokion unean aurkezteko modurik izan ez bazuen ere, euskaltzainen artean azken orduan banaturiko idatzia laugarren puntuari, hots, «XVIII. Bar-

ne Jardunaldiei» dagokiola, eta beraz, han jaso beharko litzatekeela aipamena. Izan ere, aparteko kontua dela ematen du.

A. Urrutiak adierazi du kronologikoki halaxe egin zela eta ondo jasota dagoela bilera-agiri proposamenean. Nolanahi dela ere, txosten hori laugarren puntuarekin lotzeko esaldi bat gehitzea iradoki du. Horiek horrela, honela uztea onartu da: «... proposatuz. Idatzia 4. puntuari dagokio eta aurreko Osoko bilkuran eskaturikoa da. Nolanahi ere, denbora faltaz ez da ahoz aurkeztu. Horiek horrela...».

P. Goenagak adierazi du ez daukala zuzenketa zehatzik egiteko. Alabaina, laugarren puntuan azaltzen diren «hobetsi» eta gisakoek zer adierazi nahi duten galdetu du. Barne-erregelako atal batzuetan erabaki zehatzak hartu ote ziren ez baitago garbi.

J. L. Lizundiak proposatu du bilera-agiriko 4. puntua erabakitzea hurrengo baterako uztea, berak beste modu batera formulatu nahiko lukeelako eta Idazkaritzari laguntza eskaini dio zeregin horretarako. Era berean, batzuetan ohargileek oharrak nori egin dizkioten ez dela jartzen aktan azpimarratu du.

A. Urrutiak J. L. Lizundiari erantzun dio, esanez oharrak garaiz eta idatziz egitea komeni dela, besteren artean, bilera-agiriaren onarpena arindu ahal izateko. P. Goenagari ere erantzun dio, esanez 2015. urtean ere Barne Jardunaldiak egingo direla, eta Barne-erregelak orduan ere eguneratu edo aldatu daitezkeela. Ondorioz, Barne-erregelen moldaketa egin ahal izateko, Zuzendaritzari denbora ematea eskatu du. Hori ez da epemugarik gabe kontuak bere horretan uztea, Zuzendaritzak konpromisoa hartu baitu Osoko bilkuran prozesu horri buruz pentsatzeko eta udazkenean abian jartzeko. «Hobetsi» eta gisako idazketak direla eta, A. Urrutiak esan du M. Azkaratek proposamen zehatz batzuk egin zituela, eta horietako hainbat irizpide gisa onartu zirela Osoko bilkuran. Beste batzuk, ostera, zehaztu gabe zeudenez gero, aurrerago hausnartzeko eta zehazteko utzi ziren.

P. Goenagak esaera batzuen esangura argitzea besterik ez duela nahi izan argitu du.

Idazkariordeak bilera-agiriei buruz egon daitezkeen oharrak, iruzkinak edo zuzenketak idatziz egitea ona litzatekeela esan du, proposatzen diren aldaketen aurrean euskaltzainen iritzia zein den jakiteko, eta horiek kontuan izanik, zuzenketak ganoraz eta denboraz egin ahal izateko. Era berean, bilera-agiriko puntuen hurrenkera gaizki dagoela esan du (4. zenbakiarekin bi puntu azaltzen dira eta. Era berean, 2. puntuko azpi-atal bat, 3.2. zenbakiarekin ageri da), beraz, behin betiko bilera-agirian konponduko da.

Amaitzeko, euskaltzainburuak ea bilera-agiria onartzen den galdetu du. J. L. Lizundiak 4. puntuari, hots, «XVIII. Barne Jardunaldiei» buruzko atalari erreserba egiten diola eta bilera-agirian espresuki jaso dadin eskatu du. Era berean, gainerako puntuei buruzkoa onartzen duela dio. Ondorioz, ohar horiek jasota, bilera-agiria ontzat eman da.

2. «Zientzia eta Teknika Hiztegia»

2.1. «Fisika: oinarritzko hiztegia» onartu, hala erabakiko balitz. Ez da oharrik etorri eta, beraz, onartu egin da. Zerrenda horren erabilera dela eta, aparteko tokian barik, I. Sarasolak eskatu du zerrenda onartu hori berehalaxe Hiztegi Batuan txertatzeko. X. Kintanak bestela argitaratzea hobetsiko luke, zientzien zerrenda horiek hiztegi orokorraren osotasuna, hasiera honetan behintzat, desoreka ez dezaten. Hitz horien estatusa zein den, hots, jada onaturik daudela, argi uzteko eskatu du J. Lakarrak, eta A. Arejita berarekin bat etorri da. A. Sagarnak esan du hitz zerrenda onartuei estatusa Euskaltzaindiaren batzarrak ematen diela, eta, erabiltzaileen erraztasunerako, bai Hiztegi Batuan eta bai zerrenda berezietan argitaratzea komeniko litzatekeela.

Idazkariordeak erabiltzaile potentzialen (unibertsitateak, argitaletxeak, irakasleak eta abar) onerako, zerrendak, Euskaltzaindian onartu ondoren, ahalik lasterren aurkeztea eta zabaltzea proposatu du.

I. Sarasolak uste du esplizitatu behar dela hitzen estatusa zein den, bai eta ea onaturiko guztiak maila berean dauden ere. A. Urrutiak aspaldi hori idatzirik dagoela gogorarazi du: bakoitza arau, gomendio edo zer den xehatuz. Hala komeniko balitz, hori berrikusi beharko litzatekeela ere esan du. Era berean, Informatika zerbitzuburuari zerrendak erabiltzailei eskuratzeko zenbat denbora beharko den aurreikuspena egin dezan eskatuko zaio.

Tx. Peillenek galdetu du nolakoak diren IVAP-HAEE deiturikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko harremanak. Horri buruz, A. Urrutiak erantzun dio esanez lan-kidetza-hitzarmena dutela Euskaltzaindiak eta IVAP-HAEE erakundeak. Horren barruan, egiteko zegoen jardunaldia ez da oraindik egin, asmoak bai, baina eragozpenak ere egon direlako.

3. XVIII. Barne Jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz

3.1. **Barne-erregelak.** Atal honetan, A. Urrutiaren zenbait ohar, aurrekoetan aurkeztu eta eztabaidatu ez direnak, eta ohar hauetako batzuei J. L. Lizundiak egi-

niko iruzkinak gelditzen dira. Atal honi ekitean, eztabaida egon da erabili beharreko prozedurari buruz. J. L. Lizundiak proposatu du oharrik jaso ez duten A. Urrutiaren ekarpenak bere horretan onartzea. Era berean, bere oharren harira, A. Urrutiari eskatu dio proposamenak erretiratzea, besteren artean, Barne-erregelen eztabaida gehiegi ez luzatzeko. Halaber, euskaltzainburuari esan dio beren arteko desadostasunak bere telefonoz edo ados ditzaketela.

A. Urrutiak adierazi du bere ekarpenak aurkeztu eta eztabaidatu nahiko lituzkeela, gainerako guzti-guztiek egin ahal izan duten moduan. Era berean, Barne-erregelak direla eta, J. L. Lizundiarekin idatzizko testuak trukatu behar baditu, prest dagoela eta idatzitakoaren zuzeneko berria Zuzendaritzari eta Osoko bilkurari emango diela gaineratu du, berak ez baitu ezer ezkutuan egin gura.

P. Salaberri pribatuki edo erdi ezkutuan egindako tratu horiek direla eta, egin den proposamenarekin ez dator bat, Osoko batzarraren onespentetik iragan gabeak lirakeelako. Aurretik, gainera, gutxienez Zuzendaritzatik pasatu beharko lukete, iritzia jasotzeko. A. Urrutiak berretsi du P. Salaberrik esandakoa eta azpimarratu du horrexegatik egin duela bere proposamena.

Ondoren, Barne-erregelako 16. artikuluari eginiko zuzenketak aurkeztu dira. Oharra A. Urrutiak egin du, eta honek eginikoari J. L. Lizundiak iruzkina egin dio. 16. artikuluari buruzko eztabaida hurrengorako utzi da.

Segidan, 43. artikuluari eginiko gehitzea aurkeztu du A. Urrutiak. Zuzenketa honen bidez, Egiturazko batzordeetan Azkue Bibliotekari «Azkue Biblioteka eta Artxiboa» deitzea proposatu du. Onartu da.

Barne-erregelako 51. xedapenari A. Urrutiak eginiko iruzkina aurkeztu da. Proposatutakoaren harira, eztabaida egon da idatziaren hizkuntza-zuzentasuna dela eta. Azkenean, honela geratu da: «Batzordeek beren langintza garatzeko eskubidea dute, betiere Euskaltzaindiak onarturiko plan estrategikoaren arabera, eta emaitzen kontua, Osoko bilkurari emango diote, honek, hala legokiokeenean, azter eta berrets dezan».

Barne-erregelako 62. artikuluari A. Urrutiak eginiko ekarpena eta azken honi J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketa hurrengorako utzi dira.

83. artikulua dela eta, 16. artikuluan eginiko zuzenketarekin (Artxiboa gehitzea) bat datorrenez gero, onartu da. 85. artikuluari A. Urrutiak eginiko oharra onartu da aldaketa txiki batekin. Hona hemen: «...laguntza ematea eta Euskaltzaindiaren ondare akademikoaren gizarteratze lana sustatzea dira, Azkue Bibliotekaren...». 87. artikulua eztabaida hurrengorako utzi da.

88. artikuluari A. Urrutiak eginiko oharra onartu da, aldaketa txiki batekin: «Azkue Bibliotekaren eta Artxiboaren kontabilitatea erakundearen kontabilitate orokorraren barruan eramango da». Puntu honi dagokionez, J. L. Lizundiak adostasuna erakustez gain, iraganean halaxe ez izateak arazoak sortu zituela gaineratu du.

Ondoren, Barne-erregelako 92. artikuluari A. Urrutiak eginiko iruzkinak eta oharrak aztertu dira. Artikulu honi eginiko oharrak hiru izan dira; batetik, 92.2 xedapenaren akabuan esaldi bat gehitzea onartu da («Batzorde honek aholkuak emango ditu, Zuzendaritzaren edo Osoko bilkuraren eskariz, Azkue Bibliotekari eta Artxiboari buruzko gaietan»); bestetik, 92.3 idatzian «Bibliotekako eta Artxiboko» testua jartzea onartu da; azkenik, 92.6 puntua gehitzea proposatu du A. Urrutiak. Testuak ondorengo hau dio: «Artxiboaren ibilbidea atontzeko batzordeño suntsikorra, Zuzendaritzak izendatua, Bibliotekako eta Artxiboko batzordeari adierazita». 92.6 puntua gehitzea ez dela beharrezko iritzi da Osoko bilkuran. Ondorioz, erretiratu egin du A. Urrutiak.

93. artikuluari A. Urrutiak eginiko ekarpena eta azken honi J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketa hurrengorako utzi dira.

94. artikuluan bi ekarpen egin ditu A. Urrutiak; «Azkue Bibliotekako eta Artxiboko langileak...» eta paragrafoaren bukaeran «plan estrategikoaren arabera». Biak onartu dira Osoko bilkuran.

95. eta 96. artikuluei A. Urrutiak eginiko ekarpenak eta hauei J. L. Lizundiak aurkeztutako zuzenketak hurrengorako utzi dira.

97. artikuluararen amaierako esaldia moldatzea proposatu du A. Urrutiak. Hona hemen: «Idazkari lanak, Argitalpenen zerbitzuaren arduradunak egingo ditu eta bereziki zainduko da Akademiaren argitalpenen hizkuntza-kalitatea». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

98. artikulua eguneratzeko zenbait proposamen egin du A. Urrutiak; hirugarren paragrafoko «Argitalpen zerbitzuaren arduraduna...» onartu da Osoko bilkuran, bai eta 98.3 eta 98.4 xedapenei eginikoak ere. 98.6 xedapena gehitzea onartu da, idazkeraren aldetik zuzenketaren bat egin ondoren. Ondorengo da gehituriko pasarte: «Idazkariordearen agindupean argitalpenaren ikusgarritasuna eta gizarteratzea zehaztea eta argitalpenaren jarraipena egitea, euskalgintzaren barruan».

102. artikulua eguneratzea proposatu du A. Urrutiak amaierako esaldian «... honetan, argitalpen zerbitzuaren arduradunaren laguntza izango du». Onartu da.

103. artikulua dela eta, ordea, bigarren paragrafoaren hasiera honela gera dadin proposatu du euskaltzainburuak: «Idazkariordeak koordinatuko ditu, lantalde horren barruan, prentsa eta komunikazio zerbitzuaren arduraduna, argitalpen zerbitzuaren arduraduna eta Informatika...». Azken ohar hau ere onartu da Osoko bilkuran.

Amaitzeko, 105. artikulua 105.5 xedapenari esaldi bat gehitzea proposatu du A. Urrutiak, zera dioena: «Idazkariordeak koordinatu eta lagunduko ditu lan honetan». Azken hau ere onartu egin da.

3.2. Ahoskera Lantaldea Batzorde bihurtzeko proposamena. Barne-erregelak eztabaidatu ondoren, aurreko Osoko bilkuran M. L. Oñederrak aurkezturiko proposamena eta azken honi egin zaizkion oharak aurkeztu dira. Bi ohar egin zaizkio, gutun bidez Euskaltzaindira helaraziak. Bata X. Kintanarena, eta bestea, A. Urrutiarena.

Xabier Kintanak berea irakurri du, eta Euskaltzaindiaren batzordeetan orain arte ohiko araubidea batzordea euskaltzain osoz zein urgazleez osatzea izan dela gogorazi du. Hori dela eta, ez deritzo zuzen, fonologian lehendik ere urgazle adituak izanda, horien ordeztuak pertsona berriak osakide izendatzeari, lehenagoko urgazleak bazterrean aholkulari gisa utzirik, eta dio hori interesatuak bigarren mailara zokoratzeatzat uler daitekeela.

A. Urrutiak ere berea irakurri du eta galdetu du M. L. Oñederraren proposamenaren aholkulari izateko aurkeztu diren pertsona horiekin alde aurretik mintzatu den. Ez dio egoki iritzi, halaber, urgazle diren aholkulariak, beraiei kontsulta egin gabe, kide proposatzen direnekin batera ez jartzea, guztiak Ahoskera batzordekide izan daitezen, Euskaltzaindiaren tradizio anitza jasoz.

M. L. Oñederrak bieie erantzun die, beste testu bat irakurriz. Horretan batzorde hori eratzeke bere gaitasuna zalantzan jartzen dela deitoratu du. Ukatu egin du bere proposatuetarik inor beheratu duenik, eta bere jendearekin kontatzeko eskubidea duela azpimarratu du. Izenak zerrendan jarri baino lehenago guztien adostasuna izan duela gaineratu du. Bestalde, batzordekide zein aholkulari izatean ez dagoela inolako mailaketa edo hobespen asmorik azpimarratu du. Halaber, M. L. Oñederrak, bere proposamenari forma arazoak egotzi zaizkionez, galdetu du zer gertatu den duela bi urte Ahoskera lantaldeak Zuzendaritzari aurkezturiko txostenarekin.

A. Urrutiak aholkulari izateko adostasuna aholkulariengandik lortu dela aktan jarri beharra dagoela esan du, eta horretaz bere erreserba daukala gaineratu du,

Euskaltzaindiari inork egotzi ez diezaion berez ez duen erantzukizuna. M. L. Oñederrak gaineratu du, aholkularien adostasuna badela aholkulari izateko. A. Urrutiak gaineratu du M. L. Oñederrak bere erantzunean erabili duen esamoldea «*nire jendea behar dut*», oso esanguratsua dela, bertara biltzen baita, ziur asko, Euskaltzaindiaren kontzeptu jakina eta hurbileko irizkideak soil-soilean batzen dituen. Era berean, azpimarratu du Euskaltzaindia Euskal Herriko guztiena dela, eta iritzi eta jatorri desberdinetako euskaltzaleak biltzen dituela. Gaineratu du, bere proposamenean M. L. Oñederrak aurkeztutako kide eta aholkulariak batzordekide ikusten dituela, alor horretako aditu esanguratsuak direlako.

X. Kintanak ere erantzun du, eta, M. L. Oñederrak bere erantzunaren testuan dioenaren aurka, azpimarratu nahi izan du berak bere idazkian ez duela deus esan M. L. Oñederraren gaitasunaren aurka. Kritikatu duen bakarra prozedura izan da, batzorde batean osakideak eta aholkulariak ez baitira inoiz jo maila berekotzat.

P. Uribarrenek beharrezkoa deritzo lantalde horren lanari koordinazioa ematea, gauzak elkarlanean egin daitezten. P. Goenagak ez du uste M. L. Oñederrak gaizki jokatu duenik, hor ezkutuko interesak gordetzen direla iradoki nahi izatea bezala. J. Lakarrak ez deritze ongi M. L. Oñederraren proposamenari egindako kritikei, eta pertsonekin zuzenik sartzea ez dela egoki esan du.

Eztabaida amaitzeko M. L. Oñederrak eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran. Era berean, A. Urrutiak aholkulariek erakutsiriko adostasuna dela eta, bilera-agirian espresuki erreserba jaso dadin eskatu du, alegia, M. L. Oñederrak bermatzen duela aholkulari izateko proposatutako horiekin aholkulari estatusa izan dezaten kontsultak egin dituela eta horien baietza baduela; bestela bada, bere desadostasuna gordetzen du, aktan egiten duen erreserbaren bidez.

3.3. XVIII. Barne Jardunaldietan Gramatika batzordeak aurkezturikoari eginko oharra. Gramatika Batzordearen 2013-2016 plangintza eta osaketa dela eta, A. Urrutiak txosten bat egin du. Euskaltzainen artean testu idatzia banatu ondoren, irakurri egin du. Banatutako idatzian batzorde horren egitekoez, eratzeko moduz eta lan prozeduraz gogoeta batzuk egin ditu. Bestalde, bere ustez, euskaldun jendeak gramatika arloan dituen eguneroko eta egiazko premiak eta Gramatika batzordeak orain arte aztertu duen problematika, aski urrun daude, eta arautze eta didaktika hutsuneak dakuski. Hortaz, lan egiteko bi plano daudela uste du, elkarren osagarri izan daitezkeenak.

Ondoren, P. Goenagak galdetu du A. Urrutiak eginiko oharra noizkoa den, hots, XVIII. Barne Jardunaldietan aurkeztu ziren txostenei ekarpenak egiteko irekiriko

aldian aurkeztu den. Hori erantzunez, A. Urrutiak adierazi du Gramatika batzor-deak prestatuko duen Gramatikaren aurkibidea eskatu zuela plangintza aurkeztu zen egunean bertan, Osoko bilkuran, eta ondoren Idazkaritzari igorriko idatzi batean. Erantzunik ez duela jaso gaineratu du. Beraz, hori jakin gabe egin zuela ezarriko epearen barruan bere ekarpena. Nolanahi ere, eskatutakoa eskuratu bitartean, ekarpena osatzeko eskubidea gordetzen zuela adierazi zuen bere sasoiari. Osoko bilkuran, gordetze hori errepikatu duela gaia aipatu den bakoitzean. Artean, eskaturiko informazioa ez da etorri eta Barne Jardunaldietan gai horri buruzko prozesua hasi denean, aurkezten du berea. Hortaz, eskatu du horri buruz eztabaidatzea eta aurkeztutakoari buruzko oharrek egiteko aldia irekitzea.

Horiek horrela, aurkeztutako idatziari ekarpenak uztailaren 12rako bidaltzea onartu da Osoko bilkuran.

A. Urrutiaren txostenean Euskal Herriko Unibertsitatearen webgunean, egun ere, iazko azaroaren datarekin, *Comisión de Gramática de la Real Academia de la Lengua Vasca* nola agertzen den azaldu du, hau da, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ikerketa taldea balitz bezalaxe, eta horri bitxia iritzi dio, ez baita ohikoa erakunde batek beste baten lanak bereak balira bezala agertzea. Puntu hori argitu beharko litzatekeela uste du, orain arte behintzat, erakunde bien arteko harremanak onak izaten segi dezaten.

4. Eskuartekoak

4.1. J. L. Lizundia euskaltzain osoa emeritu izatera igarotzearen ondorioz hutsartea betetzeko hautagaiak. J. L. Lizundia euskaltzainak aurtengo apirillean 75 urte bete ditu eta, Euskaltzaindiaren arauetan ageri denez, emeritu egoerara igaro da. Ondorioz, hutsartea 2013ko apirileko Osoko bilkuran iragarri zen.

Arauetan ezarririk dagoenez, hutsartea iragarri eta hurrengo bi Osoko Bilkurretan aurkezten ahal dira hautagaiak. Idazkariordeak, Euskaltzaindiaren erregistroan bi hautagai aurkeztu direla adierazi du. Ondokoak dira hautagaiak, aurkezturiko data kontuan hartua; batetik, Itziar Laka euskaltzain urgazlea (2013-05-31n aurkeztua), P. Salaburuk, M. Azkaratek, B. Oihartzabalek eta P. Goenagak sinatua; eta bestetik, Jabier Kaltzakorta euskaltzain urgazlea (2013-06-21ean aurkeztua), A. Anejitak, X. Kintanak, P. Urabarrenek eta A. Urrutiak sinatua.

Hautagaien curriculumak banatu ditu aldez aurretik Idazkaritzak. Nolanahi ere, norbaitek berriz eskuratu nahi balitu Idazkaritzari eskatzea iradoki du idazkariordeak. Horiek horrela, bozketa hurrengo Osoko bilkuran, uztailaren 19koan egingo dela jakitera eman da.

4.2. Euskaltzaindiari 2013ko Europar Hiritarraren saria eman dio Europako Parlamentuak. Euskaltzainburuak adierazi duenez, Europar Parlamentuak Euskaltzaindiari, euskararen eta euskal kulturaren alde egiten diharduen lanagatik, Europar Hiritarraren saria ematea erabaki du. Sariarekin batera datozen domina eta diploma urriaren 16an eta 17an jasoko ditu Euskaltzaindiak Europar Parlamentuan.

4.3. Atlasaren 4. liburukiak Juan de Iciar saria jaso du. Euskaltzaindiak argitaratu duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukiak saria jaso du pasa den ekainaren 11n, «Instituto Bibliográfico Manuel de Larramendi» deiturikoaren eskutik.

4.4. .eus domeinua. Urtebete oso bat ebaluazio fasean eman ondoren, ICANN erakundeak Euskararen eta Euskal Kulturaren Komunitatearen .eus domeinua onartu du. Hala adierazi zen joan den ekainaren 15ean, Euskaltzaindiaren egoitzan egindako prentsaurrekoan. Euskaltzaindia .eus fundazioko kide izan da sorreratik. A. Sagarna euskaltzaina izan da Euskaltzaindiaren ordezkaria eta elkarteko presidentea, aldi batean. Azken bi urteotan, J. M. Torreal dai da Euskaltzaindiaren ordezkaria eta elkarteko presidentea. Horiek horrela, biei egin duten lanagatik eskerak ematea erabaki da Osoko bilkuran.

4.5. B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren argitalpen berria. A. Urrutiak aurkeztu du auzia. Duela zenbait hilabete, Nevadako Unibertsitateak Euskaltzaindiari baimena eskatu zion Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren ingeles itzulpena argitaratzeko. Euskaltzaindiak, kontratu baten bidez, baimen hori eman zion dohainik, tirada mugatu eta zehatz bat agertzeko, betiere Euskaltzaindiak itzulpen horretan eta obra oso horren aurretiko edizioetan dauzkan jabetasun eskubideak liburuan argi eta garbi agertu beharko zirela argi utzirik.

Liburua, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin argitaratu da, bai eta prentsan horren aurkezpena egin ere. Baina obra ikusita, sinaturiko kontratuan ezarritako baldintza batzuk ez direla bete ageri da, Euskaltzaindiaren eskariz Jon Artatxo legelariak egindako txostenean zehazki adierazten den bezala. Txostena Joseba Zabaleta kudeatzaileak irakurri du. Zuzendaritzak, horren argitan, Nevadako Unibertsitateari kontu eta argitasunak eskatuko dizkio, eta Bizkaiko Aldundiaren Kultura arduradunei gertaturikoaren informazioa emango.

Era berean, Osoko bilkurara hurreraterik izan ez duten euskaltzainei Jon Artatxo abokatuak prestatuturiko irizpena bidaltzea erabaki da, bai eta Osoko bilkuraren karpeta jasotzea ere.

4.6. Espainiako sari nazionalak. Urtero bezala, Espainiako Kultura Ministeriotik eskabide bat igorri diote Euskaltzaindiari, Espainiako Literatura Sari Nazionalerako epaimahaikide batzuk izendatzeko. Eskari hori Euskaltzaindiaren Zuzendaritzan aztertu ondoren, proposatu direnen zerrenda irakurri du euskaltzainburuak. Hona hemen:

Premio Nacional de la Letras Españolas	Aurelia Arkotxa
	Xabier Kintana
Premio Nacional de Literatura (Poesia)	Amaia Jauregizar
	Sebastian Gartzia
Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil	Mari Jose Olaziregi
	Xabier Kaltzakorta
Premio Nacional de Literatura (Narrativa)	Patri Urkizu
	Miren Billelabeitia
Premio Nacional de Literatura (Ensayo)	Juan Luis Goikoetxea
	Sagrario Aleman
Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática)	Karlos del Olmo
	Arantza Fernandez
Premio Nacional a la Mejor Traducción	Kaxildo Alkorta
	Lourdes Auzmendi
Premio Nacional de Periodismo Cultural	Goizalde Landabaso
	Felipe Juaristi

4.7. J.-B. Battittu Coyosen emaztearen heriotza. Euskaltzainburuak B. Coyos Zuberoako euskaltzainaren emaztearen heriotzaren berri eman du. Elizkizunak ekainaren 12an, Mugerren egin zirela gaineratu du eta bertan, A. Urrutia euskaltzainburuarekin batera, S. Aleman, J. L. Davant, J. Haritschelhar, P. Charriton, A. Iñigo, X. Kintana, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, P. Uribarren, X. Videgain, M. Zalbide, Xipri Arbelbide, J. Zabaleta eta E. Osa izan ziren, besteak beste. Euskaltzainburuak Osoko batzarraren izenean bere doluminak adierazi dizkio. Bere alde-tik, J.-B. Coyosek eskerrak eman ditu.

4.8. Emile Larrereren istripuaz. X. Videgainek berrikitan azaldu duenez, E. Larre euskaltzain emeritua erori eta kolpatua izan da. Aulki batean egoten da, nekatua eta mugitzeko eragozpenarekin. Medikuek, edonola ere, lasaitasuna gomendatu diote. Iparraldeko euskaltzain oso batzuek bisita egin diote aurreko egunetan eta informazio hori jaso dute.

5. Azken ordukoak

5.1. Hurrengo bilera. Euskaltzaindiaren uztailaren 19ko Osoko Bilkura Akademiaren egoitzan egingo da, Bilbon, goizeko 10:00etan.

Eta besterik ez dela, Osoko Bilkura amaitutzat eman da, 14:45 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria